



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 24a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eska dezan Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-23/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NEKP Basoaren proiektua Nafarroaren lurralde osora hedatzea. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-23/DEC-00037. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi baitie beren lanarekin gure erkidegoan emakumezkoen kirola hobetzen eta ikusarazten lagundu duten pertsona, entitate eta kolektibo guztiei. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00193. Galdera, G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/PES-00202. Galdera, enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruzkoa. Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00204. Galdera, ehizari buruzko lege-proiektuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00205. Galdera, Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

- 11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertze eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia. Barne-funtzionamendu arauak (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita eska dezan Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita eska dezan Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak egingo du jarraipena.

Zioen azalpena.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoak haxe dio II. kapituluan ("Ahalmen eta eskumenen zehaztapena"), zehazki 54. artikuluko lehenengo puntuan:

"Gizarte Segurantzaren alorrean, Nafarroari honako hauek dagozkie: b) Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa".

Berrogeita bat urte igaro dira jada legearen testua idatzi zenetik, eta argi dago bertan jasotako Nafarroaren eskumen asko ez zaizkiola transferitu oraindik Foru Komunitateari.

Gure erkidegoaren eskumenen inguruko kezka hori dela-eta, "2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioan" jasota zegoen beharrezkoa zela "Foru Hobekuntzan ezarritako eskumenen garapen osoan aurrera egitea, eta horretarako Nafarroako Gobernuak berehala negoziazioak hasiko zituela Estatuko Gobernuak transferitze aldera Foru Hobekuntzak Nafarroari aitortutako eskumenak".

Estatuko gobernu berriko presidentearen inbestidura-akordioaren harira, eskumen hori bera –Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa– Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzea planteatu da, lortutako akordioen artean baitago.

Beraz, argi dago behar diren batzordeak sortu-ko direla eskumena aztertu, garatu eta eskualdatzeko, eta horrek, zalantzarik gabe, erraztu egingo luke Nafarroarekin antzeko zerbait egiteko lana.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiaitzen du Estatuko Gobernuari eska diezaion Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 54. artikuluan jasotzen den bezala.

Iruñean, 2023ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita NEKP Basoaren proiektua Nafarroaren lurralde osora heda dezan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita NEKP Basoaren proiektua Nafarroaren lurralde osora heda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, NEKP Basoaren proiektua Nafarroa osora hedatzeko honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egingo du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena.

Klima-aldaketa garapen jasangarrirako mehatxu nagusietako bat da, eta ingurumen-inpaktuak eragiten ari da ekonomia globalean, osasunean, biodibertsitatean eta giza ongizatean.

CO₂-a berotegi-efektuaren eragile nagusia da, eta hori ez gertatzeko modu bat da hura atmosferan pixkanaka kontzentratzea saihestea isurpenak murriztuz edo, aitzitik, haren xurgapena areagotuz jada ditugun karbono-hustubide naturalen bidez, hala nola lurreko eta kostaldeko landarediaren, itsas paduren, mangladien edo itsas larreen bidez. Nafarroak lurreko landaredi eta baso hostotsuko hektarea asko ditu gure Erkidegoaren luze-zabalean.

Duela aste batzuk Nafarroan karbono-hustubide gisa katalogatutako lehenbiziko proiektu publiko-privatuaren berri izan genuen, zeinak azken suteetan kiskali ziren lurak basoberritzeaz gain Foru Komunitateko enpresen jarduerak sortutako berotegi-efektuko isuriak borondatez konpentsatzen lagunduko baitu.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du honako erabaki-proposamen honen bidez:

1. NEKP Basoaren proiektua Nafarroa osora hedatzea.

2. Lortzea gure erkidegoko enpresa gehiagok proiektuaren berri izan dezaten eta sortzen dituzten CO₂-isuriaren konpentsazioaren parte aktibo izan daitezen.

3. Ekimen hori gure erkidegoko herrietan zabaltzea, azken suteetan kiskalitako eremuen basoberritzearen parte aktibo izan daitezen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 16an

Foru parlamentariak: Ramón Alzórriz Goñi, Pablo Azcona Molinet, Carlos Guzmán Pérez

11-23/DEC-00037. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi baitie beren lanarekin gure erkidegoan emakumezkoen kirola hobetzen eta ikusarazten lagundu duten pertsona, entitate eta kolektibo guztiei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

1. "Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi die beren lanarekin gure erkidegoan emakumezkoen kirola hobetzen eta ikusarazten lagundu duten pertsona, entitate eta kolektibo guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du emakumezkoen kirolak gure erkidegoan daukan garrantzia.

3. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du kirol federazioek eta toki-erakundeek emakumezkoen kirolaren alde egiten duten lana.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela emakumezkoen kirola sustatzen duten politika publikoak garatzen jarraitzea.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gure erkidegoan emakumezkoen kirola balioan jartzera bideratutako jarduerak abian jartzeko konpromisoa.

6. Nafarroako Parlamentuak erakundearen saririk gorena den Nafarroako Parlamentuaren domina emanen die Foru Komunitateko kirol federazioen ordezkariak, ATEDENA-NAKITEL elkarteak eta kirol-esparrua osatzen duten kolektibo eta entitate guztiei, berdintasunaren alde egindako lanagatik eta erakundeekiko lankidetzagatik".

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00193. Galdera, G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruzkoa**MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer dela-eta aldatu dira honako aurrekontu-partida hauek?

1. G/710001/4700/414210 partida handitzea. Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez, 240.000,00 € handitzea, honako partida honen kargura:

- G/710006/7700/414400. "Aparteko uholdeek eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura pribatuetarako laguntzak" (240.000,00 €).

2. G/700000/4700/411102 partida handitzea. Ondare erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordainak eta epaien betearaztea, 35.389,98 € handitzea, honako partida honen kargura:

- G/720004/7700/412103 PDR FEADER 2014-2020. Nekazari gazteak instalatzea (35.389,98 €).

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/PES-00202. Galdera, enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruzkoa

ARANTXA IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako idatzizko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

2023ko martxoaren 21ean talde parlamentario guztiek aho batez onetsi zuten mozio bat, zeinaren bidez "Nafarroako Gobernuak premiatzen baita

hilabeteko epean eratu dezan NEKPan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea" (2023ko martxoaren 23ko NPAO). Mozioan aurreikusitako epea igarota, hau sinatzen duen parlamentariak honako galdera hauek egiten ditu:

– Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeko?

– Noizko aurreikusten da negoziazio-batzordea eratzea?

– Zer parte-hartze izaten ari da NEKPa edo Korporazioko enpresak Nafarroako bulego eta langelen hitzarmenaren negoziazioan?

– Azkenean, bulego eta langelen hitzarmen kolektiboaren epea amaitzen bada akordiorik lortu gabe, nola eragingo die egoera horrek bulego eta langelen hitzarmen kolektiboa aplikatzekoa zaien enpresa publikoetako langileei? Eta nola eragingo die etorkizuneko kontratazioei? Zer neurri hartuko ditu NEKPak?

Iruñean, 2023ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00204. Galdera, ehizari buruzko lege-proiektuari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, ehizari buruzko lege-proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noiz aurkeztuko du Ehizari buruzko lege-proiektua Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak?

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-23/PES-00205. Galdera, Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Muesko presa erromatarraren aztarnategiaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Noiz hartuko ditu neurriak Nafarroako Gobernuak zure departamentuak Muesko presa erromatarraren aztarnategian eragin duen abandonu- eta narriadura-egoera konpontzeko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia**BARNE-FUNTZIONAMENDU ARAUAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen “Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeke eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak”, zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2023ko azaroaren 17an eginiko bilkuran. Hona testua:

Lehena.- Ponentziaren xedea da Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertu eta hobekuntza-proposamenak ezartzea

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera; eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena.- Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

– Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa: Miguel Bujanda Cirauqui jauna (titularra) eta Félix Zapatero Soria jauna (ordezkoa).

– Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa: Antonio Javier Lecumberri Urabayen jauna (titularra) eta Ibai Crespo Luna jauna (ordezkoa).

– EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa: Adolfo Araiz Flamarique jauna (titularra) eta Severiano Txoperena Matxikote jauna (ordezkoa).

– Geroa Bai talde parlamentarioa: Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (titularra) eta Pablo Azcona Molinet jauna (ordezkoa).

– Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioa: María Isabel García Malo andrea (titularra) eta Irene Royo Ortín andrea (ordezkoa).

– Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa: Daniel López Córdoba jauna (titularra) eta Miguel Garrido Sola jauna (ordezkoa).

– Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak: Emilio Jiménez Román jauna (titularra) eta María Teresa Nosti Izquierdo andrea (ordezkoa).

Hirugarrena.- Ponentziak Antonio Javier Lecumberri Urabayen jauna hautatu du lehendakari. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

Laugarrena.- Ponentziak boto haztatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat foru parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

Bosgarrena.- Ponentziak laguntza eta lankidetzak eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezen. Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitezen.

Seigarrena.- Ponentzian eginen diren agerraldiak irekiak izanen dira hedabideentzat eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituko dira, ponentziak salbuespenez ateak itxita izanen direla erabakitzen duen kasuetan izan ezik. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzailearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez.

Parte-hartzailearen batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako beste txanda

bat ireki ahalko du. Horiek egiteko bost minutu edukiko dituzte.

Zazpigarrena.- Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko dituen. Plan horren berri emanen zaio Legebiltzarreko Mahaiari.

Zortzigarrena.- Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte jardunen du. Ponentzia-eratzetik sei

hilabete igarotakoan amaituta egon beharko du lan horrek, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren balizko luzapenak.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

